

KUTXABANK TXARTELAK SUSTATZEKO KANPAINA:

“KUTXABANK GABONAK 2024”

1.- Sustapenaren definizioa eta lurralde-eremua:

KUTXABANK SAK (aurrerantzean, Kutxabank) kanpaina bat egingo du estatu osoan Kutxabank txartelen erabilera bultzatzeko Estatu osoan. Adinez nagusiak diren pertsona fisikoek parte hartu ahal izango dute, Kutxabanken bezero badira eta oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen badituzte. Ezin izango dute parte hartu Kutxabankeko langileek.

Kanpaina egingo da soil-soilik publizitate- eta sustapen-helburuekin, gainpreziorik eta tarifa gehigarririk gabe parte-hartzaileentzat.

2- Saria:

93 sari banatuko dira. Zehazki: oinarri hauetako baldintzak betetzen dituzten Kutxabankeko bezeroek eginiko 93 erosketaren zenbatekoa itzultzea. Erosketek beteko dituzte 5. atalean jasotako baldintzak, eta 4. puntuan aipatutako Kutxabank txartelekin egingo dira.

Egunean 3 sari emango dira, 3. puntuan aipaturiko sustapen-egunetan.

Gehienez 500 € itzuliko dira sari bakoitzeko.

3.- Sustapenaren iraupena:

Kanpaina egingo da 2024ko abenduaren 16tik 2025ko urtarrilaren 15era (biak barne). Oinarriak gordailutuko dira Vicente M^a Arenal Otero jaunaren Bilboko notaritzan.

Kutxabankek sustapen hau eten edo baliogabetu ahal izango du, edo sustapenaren baldintzaren bat aldatu, ezin bada sustapena modu egokian egin arrazoi teknikoengatik, sanitarioengatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo Kutxabanken borondatek kanpo dagoen beste edozein zirengatik. Kasu horretan, Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango, eta haren betebeharra izango da oinarri eta baldintza berriak jakinaraztea edo, hala badagokio, sustapena bertan behera uztea, nahikoa denborarekin jakinaraziz. Era berean, Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango saridunak ezin badu saria jaso, erakundearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

4.- Sustapenean parte hartzeko baldintzak:

Adinez nagusiak diren pertsona fisikoek parte har dezakete, Kutxabankeko bezeroak izanik baldintza hauek betetzen badituzte sustapenaren datetan:

- Gutxienez partikularren finantza-txartel aktibo baten titularra izatea:

Visa Classic, Urrezko Visa, Urrezko Visa Dual, Urrezko Visa Profesionala, Platinum Visa, Visa Dual, Visa Dual Profesionala, Korner Visa Dual, K26 Visa Dual, K26+ Visa Dual, % 100 Visa Dual, Nagusi Visa Dual, Sticker Dual/Kreditua, Visa Nakar, Visa Partaide, Visa Dual R.Sociedad, Visa Debit, Visa Debit Profesionala, Visa Debit Korner, Visa Debit K26, Visa Debit K26+, Visa Debit % 100, Visa Debit Nagusi, Visa Debit R.Sociedad, Sticker Débito, Visa Extra.

- 50 eurotik gorako erosketak egitea, baliogabetu gabeko erosketak, aurreko puntuan aipatutako txartelak erabilia, txartelaren titularra izanik, 2024ko abenduaren 16tik 2025eko urtarrilaren 15era bitartean (biak barne).

- Baliozkotzat hartuko dira 3. eta 4. puntuetan jasotakoaren arabera aipatutako txartelekin eta kanpainaldian (2024ko abenduaren 16tik 2025eko urtarrilaren 15era) eginiko erosketak, baldin eta Kutxabanki jakinarazten bazaizkio, fitxategi informatikoak egiteko egunean sare eta erakundeekin informazioa trukatzeko dauden sistemen bitartez. Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango fitxategi horietan edozein arrazoi medio edozein akats gertatuz gero.
- Kutxabankek zozketatik kanpo utziko ditu saria emateko datan erakundearen mugaeguneratutako saldo zordunak dituzten edo kapital-zuriketa prebenitzeko fitxategietan dauden pertsona fisikoak, eta zozketatik kanpo utziko ditu ere datuak babesteko araudiaren arabera publizitaterik ez jasotzeko eskaera egin dutenak edo jakinarazpen komertzialik jaso nahi ez duten bezeroen fitxategi batean daudenak.
- Kutxabankeko langileek ezin izango dute parte hartu sustapen honetan.

5.- Sustapenaren mekanika:

2024/12/16tik 2025/01/15era bitartean, 93 une finkatu dira, eguneko 3 (ordu, minutu eta segundo bidez zehaztuta), une horietan txartelekin eginiko eragiketak saritzeko. Sariak emateko datak eta orduak notarioaren aurrean erregistratu dira, sustapenaren oinarriekin batera. Ordu jakin batean erosketarik egiten ez bada, data eta ordu horren ondorengo lehen eragiketa sarituko da.

Pertsona batek sari bakarra jaso ahal izango du.

Saridun bati beste sari bat egokitzen bazaio, aurrerago eginiko beste erosketak bategatik, saria (gehienez 500 € itzultzea), hurrengo erosketaren txartel-titularrarentzat izango da.

6.- Saridunei jakinaraztea eta sariak ematea:

Ondorio guztietarako (zerga-ondorioak barne), saridunari saria irabazi duela jakinaraziko zaio gutun bidez, telefonoz, posta elektronikoz edo Kutxabankek egokitzen hartutako beste edozein bitarteko bidez.

Edozein arrazoiengatik ezin bada saridunarekin harremanetan jarri 10 egun naturaleko epean, saria automatikoki emango zaio hurrengo erosketaren txartel-titularrari, eta Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango.

Kutxabankek erabakiko du bezeroei saria nola eta non eman.

Saria onartzeak esan nahi du saridunak lege-oinarri hauek onartzen dituela.

7.- Saria aldatzea:

Sustapen honen sariak ezin izango dira inola ere trukatu, aldatu edo konpentsatu. Kutxabankek saria ordeztu ahal izango du, ezinbesteko arrazoiengatik.

8.- Uko egitea sariari:

Saridunak uko egin ahal izango dio sariari, idatzi bat bidalita jakinarazpena jaso eta hurrengo 10 egun naturaleko epean, baina ezingo dio saria beste inori eman. Norbaitek uko eginez gero, saria automatikoki emango zaio hurrengo erosketaren txartel-titularrari.

Bezeroak uko egiten badio sariari, ez du jasoko inolako konpentsaziorik.

9.- Datu pertsonalak babestea:

Sustapenean parte hartzeak berekin dakar parte hartzaileen datu pertsonalak sartzea Kutxabankeko Informazio Sistemari, parte hartzearen kudeaketa-lanetarako.

Datu horiek erabiliko dira soil-soilik saridunaren izen-abizenak edo irudi pertsonala edozein publizitate- edo sustapen-jardueratan erabiltzeko, erreproduzitzeko edo zabaltzeko, edozein bitarteko, euskarri edo formatu erabilia, eta hori egiteak ez du inolako ordainsari-eskubiderik emango, saridunaren edo haren lege-ordezkararen berariazko baimena izanez gero.

Gainera, edozein desadostasun sortuz gero datu pertsonalak erabiltzean, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da, noiznahi, kontrol-agintaritzan aurrean, eta dagozkion eskubideak ere baliatu ahal izango dira: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta datu pertsonalei dagozkien banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak. Horretarako, idatzi bat bidaliko da Kutxabanken helbide sozialera, edo mezu elektronikoa bat, info@kutxabank.es helbidera, nortasuna akreditatzeko dokumentua erantsita, bi kasuetan. Uste baduzu ez ditugula zure datu pertsonalak arauen arabera erabili, harremanetan jar zaitezke Datuak Babesteko ordezkariekin, helbide honetan: dpo@grupokutxabank.com.

10.- Fiskalitatea:

Saridunen kontura izango da kanpaina honetako sariaren ondorioz sorturiko edozein karga fiskal.

11.- Sustapenetik kanpo gelditzea:

Kutxabankek sustapenetik kanpo utzi ahal izango ditu sariaren datan erakundean saldo zordun mugaeguneratuak dituzten bezeroak, bai eta data horretan ordainketak egunean ez dituzten bezeroak edo Kutxabanki kopururen bat zor diotenak ere, kontzeptua edozein izanik ere.

12.- Erantzukizunetik salbuestea:

Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango hirugarrenei egotz dakiekeen eta sustapen honetan eragina izan dezakeen edozein arrazoiengatik.

Era berean, Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik izango ere saria baliatzean sor daitezkeen kalte-galerengatik.

13.- Oinarriak onartzea:

Sustapenean parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla; besteak beste, Kutxabankek sustapenaren mekanika definitzeko ezarri dituen eta parte-hartzailearen berariazko baimenik behar ez duten baldintzak. Kutxabankek kanpainatik kanpo utzi ahal izango ditu sustapenaren oinarriak eta bere irizpideak betetzen ez dituzten bezeroak, edo iruzur egiten dutenak edota sustapenaren funtzionamendu egokia eragotzi edo oztopatzen dutenak.

14. Oinarriak kontsultatzea:

Oinarri hauek bezeroen eskura egongo dira www.kutxabank.es web orrian.